



ARESOko UDALA

## 66/2018 ALKATE EBAZPENA

Areson 2018ko abenduaren 14ean

### GAIA: ARESOKO UDALEKO IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAILE LANPOSTUA DEBORALDI BATEAN ETA KONTRATU ADMINISTRATIBO IZAERADUN HAUTAGAIEN ZERRENDA OSATZEKO DEIALDIA

#### 1GO AKTA: HAUTAGAIEN BEHIN BETIKO ONARPENA

UR ALGUERO CHIVITE, Udalerrri honetako Alkate buruak, honen bitartez

#### ADIERAZTEN DU:

Azaroaren 27ko 65/2018ko Alkate Ebazpenak, "Idazkari- kontu hartzaile lanpostua aldi baterako eta kontratu administratibo izaeradun hautagaien zerrenda osatzeko deialdiko oinarriak" onartu zituen.

Horren harira, [www.areso.eus](http://www.areso.eus) webgunean deialdiaren iragarpena egin zuen Udalak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez ere bai, iragarri.

Interesdunek izena emateko epea abenduaren 11<sup>a</sup> bitartekoa izan da. Epe hau amaituta eta interesdunek aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, honakoa

#### EBAZTEN DU:

#### LEHENENGO: BEHIN BEHINEAN ONARTUTAKO HAUTAGAIEN ZERRENDA

Honako hautagaiak izan dira onartuak:

HAUTAGAIA		EGOERA
Sandra	Martinez Gutiérrez	Onartua
Amaia	Ilundain	Onartua, euskara ezagutza ziurtatzea pendiente
Zunbeltz	Larrea Azpriri	Onartua

#### BIGARRENA: BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN ZERRENDA

Ez dago.



ARESOko UDALA

### **HIRUGARRENA: EUSKARA FROGAREN DATA**

Deialdiko 2.1.e oinarrian ezarritako euskara maila ziurtatu ez duten hautagaiak, azterketa berezia egin beharko dute berau egiaztatzeko.

Hain zuzen ere, hautagaiak idatzi eta ahozko C1 euskara maila duten egiaztatzeko, **2018ko abenduaren 18an, goizeko 9:00etan Euskarabidea Institutoan** (JM Iribarren institutua, Bartolomé de Carranza, 5) egingo diren frogetara aurkeztu eta gainditu beharko dituzte.

### **LAUGARRENA: OPOSIZIO FROGAREN DATA**

Oposizio ataleko froga teoriko eta praktikoa, **abenduaren 20an egingo dira, goizeko 9:00etan hasita Iruñeako Kondestable Jauregiko 5. Aretoan** (Kale Nagusia 2, 2. Solairua, Iruñea, 31001).

### **BOSTGARRENA: JAKINARAZPENA**

Ebazpen honen edukia eta akatsak zuzentzeko 3 lan- egunetako epea dutela interesdunei jakinarazi eta Udaletxeko iragarki oholean eta [www.areso.eus](http://www.areso.eus) webgunean argitaratu.

Areson, 2018ko abenduaren 14ean.

UR ALGUERÓ CHIVITE



Aresoko Alkatea